ELIXABET MANTEROLA ▸ HITZEZ BASERRIKO EMAKUMEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Gure hitzaldietara hurbiltzen den emakumeak babes handia jasoko du»

Baserriko emakumeen egoera aldatu eta bizi kalitatea hobetu nahian, Hitzez Baserriko Emakumeen Elkartea sortu dutenetako bat izan da Elixabet Manterola

ONINTZA LETE

ONINTZA LETE

Joan den ostegunean egin zuen aurkezpena Aian Hitzez Baserriko Emakumeen Elkarteak. Elixabet Manterola (Aia, 1959) da elkarteko lehendakaria. Hainbat ekimenen bitartez baserriko emakumeen bizi kalitatea hobetu nahi du elkarteak.

Elkartea sortu aurretik urte luzez bildu izan zarete zeuen artean. Nola hasi zineten?

Luisa Agirretxe Zarauzko gizarte langilearekin hizketan ari nintzela bururatu zitzaigun ideia. Izan ere, baserriko emakumeok ez geneukan guretzako laguntzarik, gutaz arduratuko zen inor. Talde bat martxan jartzea pentsatu genuen, eta Agirretxek lagundu zigun.

Nola?

Psikologo bat lortu zigun, horretarako diru laguntza batzuk bideratuta. Horrela sortu genuen taldea; taldekide gehienok elkar ezagutzen genuen lehendik ere.

Orain elkartea sortu duzue. Zergatik?

Aurreko udazkenean, diru laguntzak amaituko zirela esan ziguten eta, aurrera jarraitu ahal izateko, elkartea sortzea erabaki genuen. Talde bezala laguntzak eskatuko ditugu, orain arte bezala biltzen jarraitu ahal izateko. Gainera, beste emakumeei ere aukera bera eskaini ahal izango diegu.

Zenbatean behin bildu izan zarete psikologoarekin?

Hilean behin bi orduz.

Hobekuntzarik nabaritu al duzue?

Bai, noski. Gauzak lasaiago hartzen ikasten da, eta geure gorabeheren aurrean beste ikuspuntu bat lortzen da. Elkarri laguntzeko ere balio izan digu. Izan ere, taldeka bildu izan gara; laguntza taldea deitzen zaio.

Baserrian bertan, familiaren baitan, babesik aurkitu al duzue?

Bakoitzak bere familian bizi duen egoera oso ezberdina da, baina gure erabakia onartu egin dutela esan daiteke.

Eta ulertu, ulertzen al dute?

Bai, ulertzen dute. Hoberena, hala ere, ekimen hauetan belaunaldi guztietako emakumeek parte hartzea izango litzateke, eta ez gazteek bakarrik.

Elkartea zergatik da emakumeentzako?

Gure egoera oso berezia delako; gizonezkoek badituzte beren arazoak, baina ezberdinak dira. Emakumeok antzeko arazoak ditugu eta oso erraza da elkarrenganako joera sortzea, elkarrengan babesa bilatzea.

Nolakoa da baserriko emakume baten bizimodua?

Baserrian bizi den emakumeak etxeko lan normalak eta baserrikoak uztartu behar izaten ditu; hau da, etxekoandrearen lana gehi baserrikoa egin behar izaten du: baratzekoa, basokoa, ukuilukoa, zelaikoa edota negutegikoa. Emakumea baserriko beste kideekin joaten da zelaira lanera. Etxera itzuli eta besteak esertzen direnean, ordea, emakumeak lanean jarraitzen du; bazkaria prestatzen, adibidez. Kalean bizitzea oso ezberdina da.

Zergatik?

Kalean, lana etxetik kanpo egiten delako. Baserrian dena nahasten da, dena batera ematen da eta beste aparteko lotura bat du.

Norberarentzat denborarik hartzen al du baserriko emakumeak?

Ez, batere ez. Pentsatu ere ez da egiten hartu behar denik; beti ezinean, beti presaka ibiltzen gara. Gainera, geuretzako denbora hartzen dugunean, gaizki, errudun sentitzen gara. Zerbait berezia edo apartekoa egiten dugunean gaizki sentitzen gara, lanean egon behar genukeela pentsatzen dugulako. Zaila da merezi duzula esatea zeure buruari.

Gizonezkoen kasuan, haiek denbora librea izatea normaltzat jotzen da, ezta?

Bai, noski.

Baserrian zertaz arduratzen dira gizonezkoak?

Gehienak lan arloan saiatzen dira erabat. Horretan oso onak izan daitezke, baina etxeko lanetan, umeen zaintzan eta heziketan, edota nagusien zaintzan, ez dira inplikatzen.

Baserrian ere emakumearen zeregina al da hori?

Noski, emakumearen zama da hori, bere ardura. Gainera, horrela izan behar duela uste dugu. Guk besteek gutaz espero dutena egin behar dugu, eta asko dira guri ematen zaizkigun ardurak.

Nola gainditzen da hori?

Oso zaila da, baina hortan ari gara. Besteei erakutsi behar zaie ardurak ez direla emakumeenak bakarrik, eta denen artean banatu behar direla lanak. Puntu horretara iristea, ordea, zaila da, norberaren buruarekin lan handia egin behar delako aurrena.

Zer esango zenioke oraindik zuen elkartera hurbildu ez den baserriko emakume bati?

Minutu batzuez pentsa dezala zer den bere buruarentzat nahi duena. Lehenengo pausua ematera ausartzeko eskatuko nioke; hitzaldietara etortzeko, babes handia jasoko duelako.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eskura ezazu
HITZAren aterkia
15 € harpidedunentzat 18€ harpidedun
ESKAERA EGITEKO:
deitu 943 89 00 17 telefono zenbakira edo bidali mezu bat
uh@urola-kostakohitza.info posta elektronikoa

hitza HARPIDEDUN ORDAINTZAILEA EZ BAZARA BAINA ORAIN EGITEN BAZARA, HARPIDEDUNENTZAKO PREZIOAN EROS DITZAKEZU